

XXXIV. LIZARDI SARIA 2015

Pentsatzeko txokoa

Nerea ArrieN



erein
AUSKAZO

PENTSATZEKO TXOKOA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko apirilean

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Estibalitz Jalón

© Nerea Arrien

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-099-1

L. G.: SS-446/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

NEREA ARRIEN

PENTSATZEKO TXOKOA

Marrazkiak: Estibalitz Jalón

XXXIV. LIZARDI SARIA 2015

erein **AUSKA** 

idazlea
nereaarrien



© Paula Abislerena

Nerea Arrien (Lekeitio, 1976). Hamar urte nituela, piano-jotzaile izan nahi nuen. Geroago, ez dakit zein ideia xebreren ondorioz, Biokimikako tituluarekin atera nintzen unibertsitatetik. Orain irakasle naiz eta, tartetean, eleberriak irensten dituen munstroa. Etxekoentzako, berriz, *amatxo*. Eta zuentzako, uzten baidazue, 1001 gauetan ipuinak kontatzen dituen *Xerezade*. Gau horietan asmatu nituen Sant Jordi kontakizun laburren sariketan sarituak izan ziren bi ipuin. Eta datozen gauetan kontatu nahi dizkizuet esku artean daukazun liburu honetako abenturak.

estibalitzjalón

marraskilaria



Estibalitz Jalón (1984). 2007an argitaratu zuen lehen lana, eta geroztik, hogeitaka liburu ilustratu ditu. 2009an, haurrentzako albumik onenaren egitasmoa saritzen duen Etxepare saria irabazi zuen, eta, 2010ean, *100 de hoy: Espainiar Estatuko Haur eta Gazte literaturako ilustratzaile eta idazleak* izeneko erakusketan parte hartzeko aukeratua izan zen, IBBY-ren 32. Nazioarteko Kongresuan. Horrez gainera, Euskal Herriko hurrek bi urtez segidan hautatu dute beren ilustratzaile kutunen artean JUUL saria emanda.

Pentsatzeko txokoa

Ingeleseko andereñoari ez zaio pentsatzea gustatzen.

Izatez, beretzako zigor bat da.

Gaizkileentzat kartzelak eraikitzen dituzten bezala, gelan txoko bat eraiki du. Hara bidaltzen gaitu gaizki portatzen garenean.

Pentsatzeko txokora.

Niri, berriz, pentsatzea gustatu egiten zait.

Baita txokoan leihoari begira egotea ere. Ingeleseko andereñoak galarazi egin baitigu leihoa ez den beste leku batera begiratzea, batez ere lagunei. Ezin garaela kontzentratu eta pentsatzea oztopatzen digula esaten du. Ingelesekoak ez daki pentsatu egin dezakedala telebistari edo bere aurpegiari begira egon arren. Gauza bi edo hiru batera egin ditzakedala.

Hobeto horrela, bere aurpegia begiratzen dudanean pentsatzen dudana asmatuko balu: hondamendia!

Orain ere txokoan nago.

Pentsatzen.

Zergatik gustatzen ote zaizkidan zigorrak, gaiztoa ote naizen, arraroa,... gauza da gai honek pixka bat arduratuta naukala. Egunero maltzurkeria berri bat asmatu behar dudalako ingelesekoak txokora bidal nazan, eta niri ez zaizkit maltzurkeriak gustatzen.

Niri zigorra gustatzen zait.

Ezagutzen al duzue gaiztakeriak egitea gustatzen ez zaion maltzurrik? Edo kartzelara joan nahi duenik?

Adibidez, nire gaizkile gogokoenak, Scarlet Overkill-ek, bitxitegiak lapurtzea maite du, *Villanocomen* bizitzea, tximistak gidatzea edo Ingalaterrako erreginari koroa lapurtzea. Azken honetan bakarrik daukagu antza:

Biok dauzkagu ingelesekoarekin arazoak.

Horretan, eta biok daukagun altxorrean:

Berak bere etxeko sotoan, eta nik burmuinean.

Amatxok esaten dit altxor bat daukadala burmuinean, horregatik daukadala ideia distiratsuak eta horregatik gustatzen zaidala hainbeste pentsatzea.



Maltzurkeriarekiko maitasunean, ordea, ez daukagu batere antzik Scarlet-ek eta biok. Izugarrizko ahalegina egin behar izaten baitut andereñoari mingaina ateratzeko, aulkitik erortzeko edo denak begira dauzkadala gelara berandu sartzeko.

Batzuetan, gaur bezala, pentsamenduen nahaste-borrasteak egiten ditut eta gero ezin izaten ditut korapiloak askatu.

Eskerrak momentu aproposenean txirrina joduen eta andereño Martina etorri den:

–Deba!! Zer egin duzu gaur? –galdetu dit goxo eta serio.

–Pentsatu –erantzun diot lotsatuta.

Ni, deba

Barkatu behar didazue; pentsatu eta pentsatu ahaztu egin zait neure burua aurkeztea. Deba naiz eta hamaika urte ditut.

Nire aitaxo psikoanalista da eta amatxo aktorea, orain langabezian badago ere. Amatxoren antz handia daukadala esaten didate; biok gara ilehoriak eta begi berdeak ditugu, kale-katuek bezala.

Baina amatxori, ingeleseko andereñoari bezala, ez zaio gustatzen gehiegi pentsatzea.

Behin aitaxok atea gogor jo, eta etxetik alde egin zuen.

Amatxok, larritu beharrean, *bihar pentsatuko dut* esan eta keinu egin zidan.

Horregatik esaten dizuet ez zaiola pentsatzea gustatzen. Gustatzen ez zaizkidan gauzak, hurrengo egunerako uzten baititut nik, behintzat. Gela jasotzea edo ingeleseko lanak egitea, adibidez.

Gauean, amatxoren film gogokoena ikusten geundela, Scarlett O’Hara-ri, pelikulako protagonistari, amatxok hainbeste errepikatzen duen esaldia entzun nion:

Bihar pentsatuko dut zioen hark ere.

–Hara!! Ama! Horri ere ez zaio pentsatzea gustatzen, zuri eta ingeleseko andereñoari bezala!! –esan nion arduratuta. Bazirudien munduan neu nintzela pentsatzea gustatzen zitzaion bakarra!!

–Ez, Deba, ez da pentsatzea gustatzen ez zaiola, *maitia*. Batzuetan, buruari hainbeste buelta eman gabe, arazoak bere kasa konpontzen dira. Bere denbora behar dute. Ikusten aitatxo? Etxetik alde egin du eta hamabost minutu baino lehen, berriz etxean genuen. Ez dugu bihar arte itxaron behar izan arazoa konpontzeko.

Orduan aitatxo sutan jarri zen.

Kaka egin ondoren, ez zuela katetik tira egiten esan zion amari. Komuna ataskatu eta etxea kiratsez betetzen zuela. Eta okerrena ez zela hori, okerrena, bere kiratsa denok jasan behar genuela. A, eta kaskarin hutsa zela!

–Aita!!! –esan nion haserre–. Amak ez du hori sekula egin! Ama oso garbia da, eta usain goxo-goxoa

dauka beti gure etxeak! –Haserretuta nengoen, ez zen bidezkoa horrelako gezurrak asmatzea!!

–Metafora bat izan da, Deba –galtzailearen keinuz azaldu zidan aitak.

–*Metangora?* –Harrituta utzi ninduen hitzak.

Batzuetan, aita ahaztu egiten da hamaika urte baino ez ditudala, eta oraindik, umeek zirriborroak egiten dituzten bezala, nik pentsamenduen nahaste-borrasteak egiten ditudala.

Baina hau ez inori esan; aita psikoanalista delako eta nahaste-borraste horiek askatetik bizi baita, ez sorraraztetik.